

## 2.4. Not to do. Zer ez egin kontsultan

Genero-indarkeriaren susmo edo ebidentzia baten aurrean, argi izan behar dugu zer urrats egin behar ditugun, baina, aldi berean, **zer ez dugun egin behar** ere jakin behar dugu, emakumea edo haurrak ez kaltetzeko edo arriskuan ez jartzeko, edo haien konfiantza ez galtzeko.

**1** Egoerari buruzko iritzia ematea, adingabea genero-indarkeriaren eraginpean egon den ala ez

Emakumearenganako tratu txarren susmoaren aurrean, adingabearen aurrean galdetzea, batez ere 3 urte edo gehiago baditu **2**

**3** Ahots-mezuak uztea emakumearen telefonoan

Adingabearen datu pertsonalen berri ematea telefonoz, hala nola helbidea, telefono-zenbakia edo hurrengo kontsulta zein egunetan eta ordutan izango duten, bai osasun-zentroan, bai beste edozein kontsultatan **4**

**5** Tratu txarren "alerta" aktibatzea Osabiden, beste edozein kontsultatan egiten diren txostenetan ikus baitaiteke; esaterako, larrialdietako zerbitzuan, EAGn edo kanpoko kontsultetan

Amari esatea haurrak txikiak direnean "ez direla ohartzen" edo amaren aurkako indarkeriak "ez diela eragiten". Indarkeria-giroan bizitzeak jaso aurretik ditu ondorioak, eta garrantzitsua da indarkeriak seme-alaben bizitzan zer ondorio dituen azaltzea emakumeari **6**

**7** Emakumea epaitzea eta haren portaerarekiko mespretxuzko edo gaitzespenezko iruzkinak egitea. Entzute aktiborako espazio bat eskaini behar zaio, enpatia erakutsiko diogu eta argi utziko diogu pairatzen ari den egoera ez dela bere errua

Adingabe batek egoeraren berri ematen badu kontsultan: galderak egiteko etetea, testuingurua ulertzeko beharrezkoa ez bada behintzat. Gure esku ez dagoena agintzea, "ez kezkatu, kontatu duzunez, ez zaizu berriro gertatuko". Ez erabiltzea erasotzailearen aldeko esaldirik, nahasmena baino ez baitute sortzen haurrengan: "aita ona da", "aita ona da zurekin" **8**

**9** Esku-hartze profesionalari bakarka ekitea. Talde-planteamendu bateratua egiten saiatzea, emakumearentzako eta seme-alabentzako arreta plan orokor batean integratuz